

**PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK**



**DINBILIDANBALA**



## IZENBURUA: ETXEBIZITZAK

### BIDEOA

|                        |                                |   |
|------------------------|--------------------------------|---|
| <b>Zenbakia</b><br>116 | <b>Herria</b><br>Anue (Aritzu) | <b>Protagonistak</b><br>Graciosa Villanueva Labayen |
|------------------------|--------------------------------|---|

### GALDERAK

- ⊖ Nolakoa zen Graciosak azaltzen duen baserria? Nondik ateratzen zuten ura? Eta argindarra? Aipatu etxebizitzaren espazioak/gelak eta non zegoen bakoitza.
- ⊖ Alderatu Graciosak azaltzen duen baserria zuen etxebizitzekin: 3 antzekotasun eta 3 desberdintasun.

### IKERLANA

- ⊖ Familiakoen edo gertukoenen laguntzarekin zuen etxebizitzaren oinplanoa marraztu, espazio bakoitza zer den idatziz. Gero, nork bere leku gogokoena seinala dezala, zergatiak apuntatuz.

### TAILERRA

- ⊖ Egindako oinplanoak denon begi-bistan itsatsi, baten batzuk azalduz.
- ⊖ Taldeka, ikasgelako mahai bati buelta eman, eta, etxeko aldarmioak edota hezurdura izango balitz bezala, beren etxeetako zein bideoaren baserriko ezaugarriak nahasiz, gustuko etxebizitza berri bat eraiki.
- ⊖ Irudikatu dagokion espazioan taldekideok gustuko dituzuen 2 akzio (bat banaka eta bestea norbaitekin batera egiten duzuen).

**Aldaera:** Akzioak irudikatzeko modu desberdinak: marrazkiak, argazki inprimatuak, eszenifikazioak, etab.

**Erabil ditzakezue:** Era guztietako material birziklatua etxeak eraikitzeko.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Gizartean bizitzea.* Etxea: egoitzak.
2. **Matematika.** Kode desberdinak lantzea eta erabiltzea objektu batek espazioan duen kokapena deskribatzeko, ikasleentzat hurbilekoak diren egoeretan.
3. **Arte Hezkuntza.** *Konposizioa.* Espazioaren erabilera.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Antzinako baserriak nolakoak ziren eta zergatik ziren horrelakoak ulertu dut |      |         |       |
| Etxebizitza baten oinplanoa eta 3 dimentsioko irudikapena sortzen ikasi dut  |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz   |      |         |       |

## IZENBURUA: EUSKARA FAMILIAN

### BIDEOA

Zenbakia  
117

Herria  
Arakil (Urritzola)

Protagonistak  
Ignacio Echarren Lacunza

### GALDERAK

- Ignaciok norekin hitz egiten zuen etxean euskaraz? Zergatik?
- Zein hizkuntza erabiltzen dira zuen etxeetan? Familiako guztiek hizkuntza bera erabiltzen duzue?
- Izendatu taldekideok erabiltzen dituzuen hizkuntza guztiak.

### IKERLANA

- Egin ezazue zuen familian erabili izan diren hizkuntzen zuhaitz genealogikoa birramonatik hasita zuenganaino. Zenbat hizkuntza jakin eta erabili dituzue? Zein? Nola ikasi dituzue?
- Idatz ezazu esaldi bera familian aurkitu dituzun hizkuntza horietan guztietan.

### TAILERRA

- Taldeka ikerketan egindako zuhaitz genealogikoen informazioa aztertu eta esaldiak irakurri.
- Taldeka egindako ikerlanak baliatuz, soinu lantxo bat sortu. Horretarako, bolumenarekin (xuxurlatu/oihukatu), erritmoarekin eta abiadurarekin joka dezakezue, ahotsak txandakatuz, denok aldi berean irakurriz, isiluneekin zein errepikapenekin. Existitzen den doinu bat izan daiteke (rap batena, bertso batena...) edota erabat asmatutakoa, abstraktua, eroa.

**Aldaera:** Sortutako soinu lanak entzun ahala (grabatuak edo zuzenean), erritmoei jarraituz marrazki askeak sortu. Taldeka zein bakarka egin daiteke, DIN33 zein neurri handian, arkatzak edo akrilikoak erabiliz.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Denboraren aztarnak.* Eguneroko bizitza denboran zehar: bizitza pertsonala eta familiarra.
2. **Arte Hezkuntza.** Musika: interpretazioa. Ahotsa: adierazpenerako baliabideak.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** Literatura testua, bide gisa komunikatzeko, atseginerako, jostetarako, entretenimendurako, beste munduak, garaiak eta kulturak ezagutzeko, ikasteko.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Nire familiaren hizkuntza historia ulertzen dut |      |         |       |
| Soinu lan bat egiten ikasi dut                  |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz                          |      |         |       |

# IZENBURUA: JANTZIAK

## BIDEOA

Zenbakia  
118

Herria  
Etxarri Aranatz

Protagonistak  
Catalina Tabar Juanche

## GALDERAK

- Catalinak kontatzen duenaren arabera, lehen, emakumeak nola janzten ziren? Zein kolore eta jantzi erabiltzen zituzten? Zergatik?
- Aipatu gaur egungo emakume janzkerarekiko dauden 4 desberdintasun garrantzitsu.

## IKERLANA

- Etxeko edo auzoko adineko pertsona bati galdetu zein zen gaztetan janzten zuen arroparik kuttunena. Eta zein da zure arroparik gustukoena?
- Arropa horiek irudikatu: marrazki, argazki, oihal edo collage erara egin ditzakezu.

## TAILERRA

- Ikerketan egindako irudiak denon artean partekatu, horma irudi bat osatuz. Alde batean, antzinako arropak itsatsi, eta bestean, zuenak, gaur egungoak. Batzuk eta besteak alderatu, gertatutako aldaketak aztertuz (koloreen zein formen esanahiak, funtzioak, erabilerak...).
- Taldeka etorkizunean pentsatuz, honako egoera hauetako baterako arropa bat asmatu:
  - Herriko plazan mimetizatzeko.
  - Hormak zeharkatzeko.
  - Hegan egiteko.
  - Beste egoera asmatu bat.



- Lehenengo, bakarka zirriborroak marraztu. Taldean zirriborro bat aukeratu eta jantzi horren diseinua burutu. Bukaeran, arropa jantzita, moda argazki bat sortu. Horretarako, arreta jarri gorputz jarreran, kokalekuan eta xehetasun guztietan, egoera ahalik eta hobekien uler dadin.

**Aldaera:** Sortutako arropak ezagutarazteko, modelo desfile bat egin ondoko klasekoak gonbidatuz.

**Erabil ditzakezue:** Arropa eta osagarri zaharrak, oihal zatiak, maindireak, pintzak.

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** Gizartearen zenbait aurrerapen, produktu eta materialen erabilgarritasuna ulertzea.
2. **Arte Hezkuntza.** Plastika: adierazpen artistikoa. Bolumena: objektuak eraldatzea.
3. **Arte Hezkuntza.** Musika: gorputz adierazpena, asmatutako mugimenduak.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Gizarte aldatu ahala, arropen funtzioak, erabilerak eta itxurak ere aldatu direla ulertu dut |      |         |       |
| Jantzi baten diseinua egiten ikasi dut, zirriborro lanetik gauzatu arte                      |      |         |       |
| Taldekie sentitu naiz  |      |         |       |

## IZENBURUA: ODOLKI ESKULTURAK

### BIDEOA

Zenbakia  
119

Herria  
Arantza

Protagonistak  
Inaxi Iparragirre Almandoz

### GALDERAK

- ◌ Inaxi Iparragirreraren arabera, nondik eusten zioten txerriari bere odola ateratzeko? Zein osagai erabiltzen zituzten odolkia egiteko?
- ◌ Ezagutzen al duzue artisau moduan gaur egun egiten den beste elikagairik? Zein? Zuen etxeetan egiten al da baten bat?

### IKERLANA

- ◌ Etxean edota harategian galdetu ezazue nola egiten den odolkia.
- ◌ Pentsatu gozamina sorrarazten dizkizuten momentu edota bizitzako plazer txikietan.
- ◌ Bi informazioak idatziz, marraztuz edota elementuren bat erabiliz jaso.

### TAILERRA

- ◌ Taldeka ekarritako informazioa partekatu. Erreparatu modu orokor batean nola egiten den odolkia, eta plazeraren inguruko momentuak elkarri kontatu.
- ◌ Modu sinbolikoan, gozameneko odolki eskultura bat sortu talde bakoitzean. Galtzerdiak edo leotardoak erabil ditzakezue azala egiteko, eta, barrua egiteko, zuen plazer horiek irudikatzen duten material edo elementu manipulatuak erabili. Adibidez, hareak hondartzan paseatzearen plazera irudika dezake; buztin lehorrak, txokolate puska bat; paper zatietan sekretuak idatz daitezke, etab. Barrukoa erabaki eta egin eta gero, odolkia betez joan, mugimenduei erreparatu.

**Aldaera:** Odolkia egiteko egiten diren mugimenduetan oinarrituz eta horiek errepikatuz, handituz/txikituz, erritmo eta abiadura aldatuz, koreografia-performance bat sortu.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Makinak eta aparatuak.* Makinen eta aparatuen eta haien funtzionamenduaren behaketa.
2. **Gorputz Hezkuntza.** Mugimenduaren adierazpen ahalbideak aurkitzea eta esploratzea, espazioari, denborari eta intentsitateari lotuta daudenak.
3. **Arte Hezkuntza.** *Adierazpen artistikoa.* Bolumena: objektuak eraldatzea.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Animalia jatorrizko produktu bat artisau moduan nola egiten den hobeki ulertu dut |      |         |       |
| Eskultura sinboliko bat egiten ikasi dut  |      |         |       |
| Taldekie sentitu naiz   |      |         |       |

## IZENBURUA: JANARIA

### BIDEOA

Zenbakia  
120

Herria  
Leitza

Protagonistak  
Juanito Zabaleta

### GALDERAK

- Juanito Zabaletaren etxean zein elikagai ziren ohikoenak bere egun arrunt bateko jatorduetan?
- Alderatu Juanitok jaten zuena egun arrunt batean zuek gaur egun jaten duzuenarekin, 2 antzekotasun eta 2 desberdintasun zehaztuz.

### IKERLANA

- Zuen senide edo ezagutzen duzuen pertsona zaharrenari galdetu iezaiozu berak umetan zer jaten zuen otordu bakoitzean egun arrunt batean. Gosaltzeko, bazkaltzeko, (meriendatzeko) eta afaltzeko.
- Elikagaien edo plateren bat ez baduzu ezagutzen, galdetu iezazkiozu xehetasun guztiak: itxura, zaporea, elikagaiaren jatorria.
- Informazioa idatziz zein marrazkien bidez jaso.

### TAILERRA

- Taldeka ekarritako informazioa konpartitu, elikagai eta platerak jatorduen arabera sailkatuz. Elikadura mota horri buruz hausnartu: oro har, elikadura orekatua iruditzen zaizue? Zerbaiten falta sumatzen duzue dieta osasuntsua izateko? Eta gehiegizko elikagairik?
- Taldean aukeratu ikertutako jatordu bat (gustukoena, ezezagunena, arranoena...) eta, mahaietan eserita, paperezko mahai-zapi batean horren platerak marraztu, ahalik eta modu errealeanean. Gero, erdian, beste paper zati batean, gaur egun oraindik jaten ditugun elikagaiak mahai-zapitik moztu eta erdiko zati horretan itsatsi. Azken horiekin, errezeta bat asmatu (zaporetsua eta osasuntsua bada, hobe).

**Aldaera:** Asmatutako errezeta horiek hiru dimentsiotan irudikatu. Horretarako buztina, plastilina, poliespana, artilea, goma-aparra eta horrelakoak erabil daitezke.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Natura Zientziak.** *Gizakia eta osasuna: elikadura azturak.* Dieta orekatua.
2. **Arte Hezkuntza.** *Teknikak eta materialak: argizariak.* Bolumena: objektuak eraldatzea.
3. **Gorputz Hezkuntza.** *Jarduera fisikoa eta osasuna: gorputzaren zainketa.* Jarrera eta elikadura osasungarrien ohiturak hartzea eta gorputz higienea autonomiaz zaintzea.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Gizartea aldatuz doan bezala elikadura ohiturak eta elikagaiak ere aldatu direla ulertu dut |      |         |       |
| Elikagaiak irudikatzen eta haiekin errezeta berriak sortzen ikasi dut                       |      |         |       |
| Taldekode sentitu naiz  |      |         |       |





## IZENBURUA: ESKOLAKO TESTIGANTZAK

### BIDEOA

Zenbakia

111

Herria

Uharte Arakil

Protagonistak

Jose Luis Huarte

### GALDERAK

- Jose Luis Huartek kontatzen duenaren arabera, ikasleak zirenean, zer-nolako zigorrak jasotzen zituzten eskolan? Beldurrik pasatzen omen zuten eskolan?
- Zuek noizbait beldurra izan duzue eskolara joateko? Zergatik?

### IKERLANA

- Galdetu zuen eskolako inguruko heldu bati (irakasle, atezain, garbitzaile...) bere ikasle garaian bizi izandako eskola esperientzia bati buruz: noizbait beldurrik izan ote zuten eskolara joateko (zeren beldur; zergatik; zer egiten zuten hori gainditzeko) eta bizi izandako sentipen atsegin baten inguruko oroitzapena. Kontatutako testigantza laburki idatzi.
- Gauza bera egin, baina, oraingoan, zuek bizi izandako beldur eta sentipen positibo bati buruzkoa.

### TAILERRA

- Ekarritako testigantza idatziak, bai zuenak bai besteenak, 2 kutxatan sartu, modu anonimoan. 2 kutxa: beldurren ingurukoa eta sentipen positiboa.
- Taldeka, 4 testigantza zoriz aukeratu (bi, kutxa bakoitzetik). Irakurri, kontatutakoari buruz hitz egin, hausnartu, sortutako sentipenez ohartu (zein diren) eta eskolako espazioetan kokatu (non agertzen diren/ziren sentipen horiek, hala nola, jolastokian, korridorean, komunetan...). Testigantza/sentipen bakoitza eskolako plano erreala batean markatu.

- Talde bakoitzak aztertutako testigantza bat aukeratu eta, mapan ezarri dion lekuan bertan, beste taldeen aurrean irakurriko du testu hori ozen. Testigantzek ahots eta gorputz berriak hartuko dituzte.

**Aldaera:** Bakarka testigantza bat aukeratu (norberarena edo besteena) eta pentsatu nori kontatuko zeniokeen eta zergatik. Pertsona horri konta diezazue konfiantzan belarrira, eta beste horrek aukeratu dezala beste norbait kontatzeko, eta, horrela, ahoz aho kateari jarraituz, testigantzak zabaldu.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Gorputz Hezkuntza.** Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidez emozioak eta sentimenduak adieraztea.
- Gizarte eta Herritar Balioa.** *Komunikatzeko abileziak.* Sentimenduen eta pentsamenduen adierazpen librea.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura.** Testuak idaztea, moten arabera: ipuinak, errezetak, pasadizoak, bizipen pertsonalen kontaketa.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Testigantzak jasotzea eta zabaltzea garrantzitsua dela ulertu dut                                     |      |         |       |
| Eskola inguruko sentipen eta emozioez ohartzen, eta horiek hitzetan adierazten eta kokatzen ikasi dut |      |         |       |
| Talde kide sentitu naiz   |      |         |       |

## IZENBURUA: SAGARDOA

### BIDEOA

Zenbakia

112

Herria

Bera

Protagonistak

Dolores Errandorena

### GALDERAK

- Dolores Errandorenak esaten duenaren arabera, zer koloretakoa zen orduan sagardoa?
- Nola ateratzen zuten sagarretatik zukua? Zure ustez, nola egiten dute hori gaur egun?

### IKERLANA

- Iturri ezberdinak erabiliz (dendetan begiratu, Interneten...), gaur egungo edari botilaratu bati buruzko informazioa bildu: nolakoa den ekoizpen prozesua (sortzea, botilaratzea, etiketatzea, etab.), nolako diseinua duten botilek (etiketak, kutxak/paketeak).
- Informazioa jaso, idatziz, etiketak bilduz zein botilen argazkiak eginez edo horiek marraztuz.

### TAILERRA

- Ekarrirako etiketak, eta botilen argazkiak eta marrazkiak itsatsiz, horma irudia sortu. Denon artean, diseinuari zein produkzioari buruzko informazioak aztertu.
- Edari berri bat asmatu. Denok zaporea adostu eta gero, botilaren ekoizpena egin, katean. Lan eta denbora banaketa finkatu. Adibidez: hiru zeregin/produktio txoko egon daitezke: botilaren diseinua (kolorea, forma, itxura); etiketatzea (izena, osagaiak...); kutxaratzea. Lana hiru produkzio denboratan antola daiteke: probak eta diseinua adostu; lana egitea; katean, produktua bukatzea. Ikasleak banatu bikoteka, txokoetan, eta, prozesu osoan zehar, binaka arituko dira txoko/zeregin berean hiru denborak betez. Bukaerako azken pausorako, lerro-katearen antzeko bat sortzea komeni da, kate prozesua agerian uzteko.

- Emaitzak apaletan edo mostradore antzeko batean jarri, dendan salgai egongo bailira bezala.

**Aldaera:** Produktuen emaitzekin propaganda kartelak egin.

**Erabil ditzakezue:** Botila hutsak (tamaina eta forma desberdinetakoak), kortxoak, pegatina zuria, tenperak, aldizkariak.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Makinak eta aparatuak.* Makinen eta aparatuen eta haien funtzionamenduaren behaketa.
2. **Gizarte Zientziak.** Gizartearen zenbait aurrerapen, produktu eta materialen erabilgarritasuna.
3. **Arte Hezkuntza.** *Irudi finkoa: kartela.* Collagea.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Edari baten produkzioa nola egiten den hobeki ulertu dut |      |         |       |
| Produktu berri bat katean ekoizten ikasi dut             |      |         |       |
| Talde kide sentitu naiz                                  |      |         |       |

# IZENBURUA: GELA HANKAZ GORA



## BIDEOA

|                        |                         |  |
|------------------------|-------------------------|--|
| <b>Zenbakia</b><br>113 | <b>Herria</b><br>Leitza | <b>Protagonistak</b><br>Gloria Irurtia Lizarraga |
|------------------------|-------------------------|--|

## GALDERAK

- Gloria Kaxetan zegoela irakasle, zein hizkuntza erabili behar zuten eskolan? Erabiltzen al zuten besterik? Zergatik?
- Zer gai ematen zuten? Berdin neskei eta mutilei?
- Zuen gaur eguneko eskolako egoeraren aldean, aipatu ez den beste aldaketarik sumatzen al duzue? Laburbildu zeintzuk.

## IKERLANA

- Zuen aitona-amonei edo antzeko adineko norbaiti galdetuz, bilatu haiek ikasle zireneko eskolari buruzko informazioa: zenbat ikasle ziren gelan (adin/genero berekoak edo nahasiak), zer-nolako ikasmateriala erabiltzen zuten, nola zeuden kokatuak aulkiak, mahaiak eta irakaslea-ikasleak ikasgelan, zein hizkuntza erabiltzen zuten (beren artean, irakaslearekin), zein ziren ikasgaiak eta beste edozein datu garrantzitsu edo bitxikeria.
- Jaso informazioa, idatziz, marraztuz edota garaiko argazki eta objektu adierazgarriak bilduz.

## TAILERRA

- Banaka, jasotako informazioa DINA4 batean berregin, marrazkiak, argazkiak eta testuak konbinatuz: eszena bat marraztu pertsonaiekin, informazioa modu abstraktuan irudikatu, komiki bineten gisara, collage itxuran...
- Antzinako ikasgeletako banaketaren inguruko informazioari jarraituz, eraldatu zuen ikasgela, mahaiak, aulkiak eta bestelako altzariak berrantolatuz, antzinako itxura izan dezan. Eman ezazue saioaren bat antolaketa berri horrekin. Argazkiak egin.

- Bukatzeko, aulkiak, mahaiak eta ikasgelako bestelako altzariak modu berri batean antolatu, espazioan instalazio edo eskultura handi bat sortuz.
- Egindako DINA4ren fotokopiak eskulturaren/instalazioan kokatu (ezkutatuz, inguruan, lurrian, itsatsiz).
- Adostu nor gonbidatu zuen instalazioa ezagutzera (elkarrizketatutako aitona-amonak, beste gela batekoak, etab.) eta gonbidapena egin.

**Aldaera:** DINA4ko irudien fotokopiekin eskolako horma oso bat estali (papereztatuzko papera balitz bezala). Antzinako distribuzioan jarrita bizi izandako sentsazioak idatzi eta horma horretan ere gehitu.

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** Bere herrian historian zehar izandako aldaketak ezagutzea.
2. **Arte Hezkuntza.** Irudi finkoa: analisisa.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** Hitzezko eta bestelako interakzio mezuak ulertzea eta adieraztea.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Gizartea aldatu den bezala, eskola ere aldatuz joan dela ulertu dut |      |         |       |
| Objektu arruntekin instalazio bat egiten ikasi dut                  |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz  |      |         |       |



## IZENBURUA: GALTZ-ARDIAK

### BIDEOA

Zenbakia

114

Herria

Imotz (Zarrantz)

Protagonistak

Felicia Etxeberria

### GALDERAK

- Felicia Etxeberriaren arabera, nola egiten zituzten koltxoiak? Eta nola egiten zituzten galtzerdiak?
- Zuen ustez, non, zerez eta nola egiten dira gaur egun eramaten ditugun galtzerdiak?

### IKERLANA

- Galdetu arropa denda edo mertzeria bateko dendariari gaur egun non eta zerez egiten diren galtzerdiak. Etiketan begiratu ere lor dezakezue informazioa. Herrian/auzoan dendarik ez balego, hori jakin dezakeen norbaiti galdetu.
- Informazioa idatzi eta etiketarik ere lortuz gero, gorde.

### TAILERRA

- Jasotako informazioa partekatu denon artean. Produkzio lurraldeak zehaztu eta begiratu ezazue ea lurralde horietako beste arroparik daramazuen soinean (etiketan begiratu).
- Ikasleak bi talde handitan banatu, 2 mapamundi handi sortu, oihal handietan marraztuz (kontinenteak zehaztuta, adibidez). Mapamundi horietan, josi artile kolore batez galtzerdiak ekoitzi dituzten jatorrizko lurraldeak, eta beste artile kolore batez, galtzerdi horiek zuen ustez guregana iristeko egiten dituzten bideak.
- Mapak eskolako leku batean zintzilikatu soketatik, lehortzen ariko balira bezala.

**Aldaera:** Taula batean osa ezazue zenbat kilometro egin behar dituzten gure galtzerdiek beren jatorrizko lurraldeetatik guregana iristeko.

**Erabil ditzakezue:** izara handi edo mahai-oihalak mapamundiak egiteko, artilerako orratzak eta artilea, sokak, pintzak.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Denboraren aztarnak.* Eguneroko bizitza denboran zehar: bizitza pertsonala eta familiarra.
2. **Arte Hezkuntza.** *Adierazpen artistikoa.* Errealitatea eta abstrakzioa artean.
3. **Matematika.** *Prozesuak, metodoak eta jarrerak.* Praktikan jarritako estrategiak eta prozedurak: marrazki bat, taula bat, egoeraren eskema bat, entsegu-errore arrazoitua, eragiketa matematiko gokiak egitea, etab...

### AUTOEBALUAZIOAK

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Arroparen jatorria eta produzitzeko moduak nola aldatu diren historian zehar hobeki ulertu dut |      |         |       |
| Informazioa askotarikoa (errealitate zein asmatua) mapa batean irudikatzen ikasi dut           |      |         |       |
| Taldeakide sentitu naiz  |      |         |       |

# IZENBURUA: KONTRABANDOA

## BIDEOA

Zenbakia  
115

Herria  
Luzaide

Protagonistak  
Angel Aintziburu

## GALDERAK

- ◌ Angelek kontatzen duenaren arabera, muga inguruko herrietan gerra denboran eta ondoren ere, zer ekartzen zuten mugaren beste aldetik? Zergatik?
- ◌ Guardia Zibilek edo karabineroek harrapatzen bazituzten, zer egiten zuten?
- ◌ Badakizue zuen herrira gaur egun ezer ezkutuan ekartzen ote duten? Eta zuek zer ekarriko zenukete?

## IKERLANA

- ◌ Kontrabandoari buruzko informazio gehiago bilatu inguruko pertsonei galdetuz: zergatik aritzen ziren kontrabandoan, noiz egiten zituzten bidaiak, nondik nora abiatu, zer ekartzen zuten, nola eramaten zuten, etab.
- ◌ Pentsatu zuek zer ekarriko zenuketen ezkutuan.
- ◌ Informazio guztia idatziz zein marraztuz jaso.

## TAILERRA

- ◌ Kontrabandoari buruzko informazioa taldeetan partekatu. Elkarri kontatu zuek zer ekarriko zenuketen ezkutuan eta zergatik.
- ◌ Taldetan zure herri/auzo/hiriko mapa bat egin, hiru dimentsiotan (maketa erara), birziklatutako materiala erabiliz. Ezkutuan ekarriko zenituzketen elementuak ere sortu (plastilinarekin, buztinarekin...). Horrekin guztiarekin eta etxetik ekarritako panpinatxoekin, jolastu kontrabando istorioak asmatzen: imajina ezazue non eta nola arituko zinatekeen zuek kontrabandoan (zer ezkutatuko zenuketen, non ezkutatuko zinatekeen zuek, nondik norako bidaiak egingo zenituzkeen, etab.).

- ◌ Zuek sortutako istorio batean oinarrituz, gaulanari buruzko animazio txiki bat sortu (stop-motion teknika erabiliz).

**Aldaera:** Sortu duzuen maketa pasa ezazue 3Dtik kartografiara/2 dimentsiotara, panpinak egindako ibilbideak ere mapan markatuz.

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** Erliebea: bere herriko, Nafarroako eta Espainiako erliebearen ezaugarriak eta mota nagusiak.
2. **Matematika.** *Neurriak.* Azalaren neurketa.
3. **Arte Hezkuntza.** *Adierazpen artistikoa.* Testura: testura grafikoak eta ukimen testurak.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Kontrabandoa zer den eta zein den haren jatorria hobeki ulertzen dut |      |         |       |
| Animazio bat sortzen ikasi dut                                       |      |         |       |
| Talde-kide sentitu naiz  |      |         |       |



## IZENBURUA: SINESMENAK

### BIDEOA

Zenbakia  
101

Herria  
Zugarramurdi

Protagonistak  
Dolores Irazoki

### GALDERAK

- Azaldu Doloresek aipatutako 3 sinesmen. Nola ikasiak dira horrelako sinesmenak? Zientzian oinarrituak al dira?
- Ezagutzen duzue antzeko erritu edo sinesmenik? Zer egiten duzue zuek, adibidez, zotina duzuenean?

### IKERLANA

- Ondoez txikiak sendatzeko 2 erritu edo erremedio natural bilatu. Zuen familiakoen edota herritarren artean galdetu (botikari bati, parean bizi denari, etab.)
- Jasotako informazioa marrazkiekin, hitzekin edo beste elementu adierazgarri baten bidez jaso.

### TAILERRA

- Ekarritakoa begi-bistan jarri eta adibide batzuk azaldu denentzat.
- Taldeka gorputzeko min edo ondoez txiki bat adostu (gelan ohikoa den bat, adibidez) eta hori sendatzeko erritual edo erremedio berri bat asmatu. Osagai, hitz eta mugimendu “magikoak” izan ditzake eta ikerketan jasotako zerbait ere gehitu dezakezue.
- Asmatutakoarekin erabilera orri bat (irudi, ikur, zein hitzekin) sortu.

**Aldaera:** Erremedio-erritualaren iragarkia egin (telebistarako edo irratirako).

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gorputz Hezkuntza.** *Jarduera fisikoa eta osasuna.* Gorputzaren zainketa.
2. **Gizarte Zientziak.** Landu beharreko gaiaren gaineko informazioa biltzea, zuzeneko eta zeharkako iturriak erabiliz.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Testuak idaztea: adierazpena eta elkarreragina.* Lan proiektu txikietan bildutako informazioetatik abiatuta testuak idazteko interesa izatea (horma irudiak, aurkezpenak...), arlo hauek bildurik: konbentzio sozialak, adetasun arauak, erregistroak, ohiturak, balioak, sinesmenak, jokabideak eta mugarri soziokulturalak.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Gorputzarekin lotutako sinesmenak hobeki ezagutzen ditut |      |         |       |
| Erritu edo erremedio bat asmatzen ikasi dut              |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz                                   |      |         |       |



## IZENBURUA: IZAKI MAGIKOAK

### BIDEOA

Zenbakia  
102

Herria  
Lesaka

Protagonistak  
Mañula Iantzi Telletxea

### GALDERAK

- Zer itxura hartzen omen zuten sorginek Mañulak azaldutakoaren arabera?
- Zer egin behar zen sorgin bat ikusiz gero?
- Beste izaki magiko beldurgarririk ezagutzen duzue? Eta ezaugarri onak/positiboak duenik? Nola izan duzue horren berri?

### IKERLANA

- Galdetu ezagutzen duzuen pertsona zaharrenari eta atzerritik etorritako ezagun bati zein izaki magiko ezagutzen dituzten. Haiei buruzko informazioa jaso (izena, ezaugarri fisiko eta magikoak). Marrazkiak ere gehitu ditzakezue.
- Izaki horiekin eta zuk ezagutzen dituzunekin, zerrenda bat osatu eta sailkapen bat egin ezaugarri positibo edota negatiboak dituzten aintzat hartuz.

### TAILERRA

- Taldeka, izaki magikoen zerrenda partekatu, beren ezaugarriei erreparatu. Erakargarrienak/gustukoena adostu.
- Taldean izaki magiko berri bat irudikatu. Taldekideen ezaugarri fisiko zein psikologiko positiboak izan ditzake; ikertutako beste izaki magikoengandik ere zerbait bereganatu dezake, batzuk eta besteak nahasiz. Giza eskalakoa egin, marraztuz, gorputz zatiak fotokopiatuz, collage antzekoa eginez. Izen bat ezarri.

**Aldaera:** Lortutako irudiak erabiliz, izaki magikoen karta jokoa sortu. Collagei argazkia atera eta, atzealdean, izaki bakoitzaren ezaugarriak, izena eta abar adierazi. Karta jokoaren arauak eta jokatzeko moduak asmatu. Etorkizuna irakurtzeko kartak izan daitezke, adibidez.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** *Denboraren aztarnak.* Historiako pertsonaiak eta iraganeko beste aztarna batzuk.
2. **Arte Hezkuntza.** *Adierazpen artistikoa.* Pintura teknikak: collagea.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Ahozko komunikazioa: entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.* Ahozko testuak entzun eta ulertzea, moten arabera: narrazio, deskribapen, iritzi, azalpen, jarraibide eta informazio testuak, irratitik, telebistatik eta Internetetik hartuak (berriak, elkarrizketak, hurrei buruzko erreportajeak, eztabaidak, gaur egungo gaiei buruzko iruzkinak, eta abar).

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Izaki magikoak zer diren eta zertarako diren ulertu dut   |      |         |       |
| Giza iruditik abiatuz pertsonaia berria sortzen ikasi dut |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz                                    |      |         |       |

## IZENBURUA: HAUR ABESTIAK

### BIDEOA

Zenbakia  
103

Herria  
Leitza

Protagonistak  
Úrsula Azpiroz

### GALDERAK

- Ursulak noiz abesten zuen kanta hori? Zertarako? Zuen ustez, nola ikasi zuen berak?
- Helburu bera duen abestirik ezagutzen duzue? Zein? Non entzun edo ikasitakoak dira?

### IKERLANA

- Familiakoen laguntzarekin txikitan kantatzen zizueten edo familian abesten zenuten bi abesti aukeratu. Zein momentutan, nola eta zertarako zen zehaztu.
- Horiek idatzi, eta, buruz ez badakizue, grabatu edo ikasi melodia.

### TAILERRA

- Ekarritako abestien errepasso bat egin. Denon artean, sailkatu kanta motak, beren erabilera kontutan hartuz (lo egin, zotz egin, jolastu, mina arindu, dantzarako...).
- Gelakideon abesti bilduma bat sortu (aukeratutako abestiekin). Lehenengo, zereginak zehaztu, eta, gero, lanak taldeka banatu, hala nola: abestu, grabazioak egin, deskargatu, CDetan grabatu, idatzizko liburuxka egin, karatulen irudiak sortu, etab.
- Lortutako bilduma zabaldu: etxez etxe igaro dadila, beste gela batekoei utzi, etab.

**Aldaera:** Taldeka, ekarritako abestien zatiak eta melodiaren bat erabiliz, kanta berri bat sortu. Kanta aberasteko, gorputzarekin sortutako soinu berriak gehitu ditzakezue (txaloak, kolpetxoak...). Gelan, kontzertu bat antolatu.



### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Arte Hezkuntza.** Musika: interpretazioa. Kantua: haurrena. Jolasak. Folklore.
- Gorputz Hezkuntza.** *Jarduera fisiko artistikoak eta adierazpenekoak.* Gorputza eta mugimendua adierazpen- eta komunikazio-tresnatzat hartzea.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Literatura hezkuntza.* Literatura testua, bide gisa komunikatzeko, atseginerako, jostetarako, entretenimendurako, beste munduak, garaiak eta kulturak ezagutzeko, ikasteko eta antolatzeke, eta egunerokoan sortzen diren problemak konpontzeko.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Ahoz aho transmititutako abestien garrantzia ulertu dut |      |         |       |
| Kanta bilduma bat egiten ikasi dut                      |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz                                  |      |         |       |

## IZENBURUA: GENEROA ETA AISIA

### BIDEOA

Zenbakia  
104

Herria  
Larraun (Alli)

Protagonistak  
Conchi Arangoa Iriarte

### GALDERAK

- Conchik azaltzen duenaren arabera, zer egiten zuten Alliko eta inguruko herriko neska kuadrillek beren aisialdian? Eta mutilek?
- Zer egiten duzue zuek lagunartean igandeetan edo aisialdian? Modu berean dibertitzen zarete neskak eta mutilak? Elkarrekin ala banatuta ibiltzen zarete?

### IKERLANA

- Bilatu 2 belaunaldi desberdinetan aisialdian egiten den lagun ekintza/jarduera bana. Lehenengoa zuen belaunaldiarena, bestea aitona-amonaren edo antzeko adineko inguruko pertsona batena. Apuntatu zer egiten zuten/duzuen, non eta norekin.
- Jaso informazioa idatziz, marraztuz edo horri buruzko argazkiak bilatuz.

### TAILERRA

- Egindako ikerketa partekatu eta komentatu denon artean. Kontu hauek aztertu: Errepikatzen al da akzioen bat belaunaldi desberdinetan? Zein? Eta generoari dagokionez, desberdintasunik ba ote dago? Ba ote dago nesken/mutilen arteko desberdintasunik ekintzetan edo talde banaketarik?
- Taldeka, aukeratu lagun taldean egindako ekintza horietako bat (edo bi nahasi) eta horren eszenifikazio/antzezpen bat egin, baina errepikatzen diren rolak eta belaunaldi-belaunaldizko ohitura estereotipatuak hankaz gora jarri. Era guztietako osagarriak erabil ditzakezue estereotipoen apurketa indartzeko, janzkera, orrazkera, gorputz mugimenduak. Eszenaren argazkiak atera.

**Aldaera:** Eszenaren argazkiaren fotokopia erabili eta, haren hondoa zein pertsonaiak eraldatuz (collage erara, marraztuz...), zuen herri/auzo/hiriko festetarako kartel eroa bilakatu.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Gizarte eta Herritar Balioa.** Pertsonen eskubideen berdintasuna eta bereizkeriarik eza jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein baldintza zein egoera pertsonal edo sozial dela kausa. Bereizkeria moten azterketa. Gizonen eta emakumeen eskubideen berdintasuna.
- Gizarte Zientziak.** Landu beharreko gaiaren gaineko informazioa biltzea, zuzeneko eta zeharkako iturriak erabiliz.
- Gorputz Hezkuntza.** Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidez norbanakoaren edo taldeen emozioak eta sentimenduak adieraztea eta komunikatzea, espontaneotasunez eta sormenez.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Aisiaz gozatzeko modu asko daudela ulertu dut          |      |         |       |
| Estereotipoekin jolasten eta esperimintatzen ikasi dut |      |         |       |
| Talde kide sentitu naiz                                |      |         |       |

# IZENBURUA: ANTZINAKO JOKOAK

## BIDEOA

Zenbakia  
105

Herria  
Leitza

Protagonistak  
M<sup>a</sup> Jesus Gogortza eta  
Asunción Lasarte

## GALDERAK

- Zertan aritzen ziren garai haietako umeak, M<sup>a</sup> Jesusen eta Asuncionen esanetan? Aipatu azaltzen dituzten 3 joko desberdin.
- Aritzen al zarete zuek haiek aipatutako jokoren batean? Zeinetan bai? Zeinetan ez? Antzekorik ezagutzen duzue?

## IKERLANA

- Aitona-amonei edota antzeko adineko norbaiti galdetuz, informazioa bilatu beren garaiko bi jokoren inguruan. Taldeka, binaka nahiz bakarka aritzekoak izan daitezke.
- Zehaztu jokoaren izena, jokalaria kopurua, zein den haren helburua eta argibideak, aritzeko lekua, materialak. Hau idatziz zein marraztuz jaso.

## TAILERRA

- Ekarririk informazioa partekatu. Jokoen zerrenda bat eratu denon artean.
- Taldeka pare bat joko desberdin aukeratu eta ongi aztertu ondoren, haietan ari. Prozesuan, argazki informatiboak atera adierazgarrien gerta daitezkeen momentuak, mugimenduak, jokorako beharrezko diren materialak eta abar biltzeko.
- Aukeratutako jokoekin irudi-bilduma bat egin. Argibideetan, testua eta ateratako argazkiak zein marrazkiak erabil ditzakezue. Bilduma analogikoa edo digitala izan daiteke. Liburuaren zein karta-jokoaren itxura izan dezake.

**Aldaera:** Eskolako haur txikientzak egokia izan daitekeen joko bat aukeratu. Haiekin ari eta jokoaren nolabaiteko arrastoa utzi lekuan bertan (klarionekin, gorputzen mugimenduen aztarnak utziz, kontzeptuak idatziz...).

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte Zientziak.** Agerpen kulturalak: nire herriko ondare artistikoa, ondare historikoa, hizkuntza, ohiturak eta abar ezagutzea.
2. **Arte Hezkuntza.** Musika: interpretazioa. Kantua: haurrena. Jolasak. Folklorea.
3. **Gorputz Hezkuntza.** Jolas tradizioaletan, elkarlanerakoetan eta kultura desberdinetako joko tradizioaletan aritzea, batik bat ingurukoak badira.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Aitzina zer jokotan eta nola aritzen ziren ulertu dut                         |      |         |       |
| Joko berrietan aritzen ikasi dut eta horiek nola irudikatu eta besteei azaldu |      |         |       |
| Taldekilde sentitu naiz   |      |         |       |



# IZENBURUA: AUZOLANA

## BIDEOA

Zenbakia  
106

Herria  
Uharte Arakil

Protagonistak  
Txomin Uharte Baleztena

## GALDERAK

- Txominek azaldutakoa entzun ondoren, zer da, zuen ustez, auzolana? Aipatu Txominek esandako 2-3 auzolan konketu.
- Ezagutzen al duzue zuen herri/auzo/hirietan egiten den auzolanik gaur egun?

## IKERLANA

- Zuen inguruko 2 pertsona adinduri galdetuz (auzokideak, aitona-amonak...), auzolanean egiten zirenen lanei buruzko informazioa jaso: nork hartzen zuten parte, zertan laguntzen zuten, nola antolatu, etab.
- Informazioa idatziz, marraztuz edota argazkien bidez bildu.

## TAILERRA

- Denon artean, ikertutako lanen zerrenda osatu.
- Bikoteka pentsatu eskolan denon ongizaterako egin dezakezen bi zeregin-auzolan.
- Gelan azaldu; auzolan horietako 2 edo 3 aukeratu, eta taldeka burutu. Lehenago, beharrezkoak diren material eta tresnak, denborak, lanen banaketa eta antolakuntza zehaztu.
- Talde batek egindakoaren berri emateko, beste taldekoek, auzolanak egin bitartean, argazkiak edo bideo dokumental labur bat (2-3 minutukoa) egin ditzakete eta eskolako webgunean edo blogean argitaratu.

**Aldaera:** Egunkariko berri bat idatzi egindako auzolanei buruz, argazkiak eta testua erabiliz. Berriaren fotokopia egin eta eskolan zehar zabaldu.

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Gizarte Zientziak.** Taldearen kohesioa eta elkarlana bultzatzeko estrategiak.
- Arte Hezkuntza.** *Ikus-entzunezkoen hezkuntza.* Irudi finkoa: argazki digitala.
- Gizarte eta Herritar Balioa.** Taldeekiko elkartasuna eta kontzientzia soziala. Erabiltzea.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Talde lanak duen garrantzia ulertu dut                                 |      |         |       |
| Inguruko beharrak identifikatzen eta irtenbide bat aurkitzen ikasi dut |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz   |      |         |       |

## IZENBURUA: BOZATARRAK

### BIDEOA

Zenbakia

107

Herria

Baztan (Arizkun)

Protagonistak

Claudia Alcasena Barrenetxe

### GALDERAK

- Claudiak kontatzen duenaren arabera, Arizkun zertan bereizten zituzten bozatar deitutako herritarrak? Azaltzen al du zergatik bazterten zituzten?
- Gaur egun bereizten den herritar talderik ba al dago zuen herrian, auzoan edo inguruan? Zein?

### IKERLANA

- Ikertu bozatarren historia familiakoen laguntzarekin: nor ziren, non jaiok, berezitasunik bazeukaten eta zergatik bereizten zituzten.
- Zuen auzo edota inguruan, ba al dago bereizita dagoen edo erabat ezezagunak diren pertsonen talderik? Zein? Zergatik gertatzen da horrela? Familiarteaz hitz egin.
- Bi informazioak idatziz edota irudien bidez bildu.

### TALLER

- Denon artean bozatarren inguruan ikertutakoa konpartitu. Ezagutzen ez ditugun herriko pertsona taldeei buruz ere hitz egin. Informazio bi hauek alderatuz, bereizi/baztertu, “ezberdin”, “ezezaguna”ren gaiari buruz hausnartu.
- Banaka pentsatu ezagutzen ez duzun eta ezagutu nahi zenukeen eskola inguruko pertsona batengan. Jolas garaian edo eskolarako sarrera / irteera momentuetan, “espioiarena egin”, berari buruzko informazioa jasotzeko (janzkera, lagunak, gustuak...).



- Taldean, espiatutako eskolako pertsonen artean, aukeratu bat (interesgarriena, exotikoena, jakin-min handiena sortzen duena...) eta berari egiteko elkarrizketa bat prestatu. Elkarrizketa burutu eta, talde guztiak egindakoekin, aldizkari bat egin. Komeni da aldizkarian elkarrizketatuen argazkiak ere agertzea.


**Aldaera:** Irratsaio baterako elkarrizketa sortu.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Euskal Hizkuntza eta Literatura.** Informazioa tratatzeko estrategiak erabiltzea.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura.** Adierazpena eta elkarreragina: euskaraz komunikatzeko interesa, ikaskideekin edo ikastetxetik kanpoko beste ikasle batzuekin (marrazkiak dituzten testuak, argazkiak eta abar erabiliz).
- Gizarte eta Herritar Balioa.** *Bestea errespetatu eta balioestea.* Besteekiko errespetua balioetsi. Izaera eta jokabide desberdinak identifikatu, ulertu eta balioestea.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Gizakiok, ezberdintasunak izanda ere, berdinak garela ulertu dut       |      |         |       |
| Ezezagun baten inguruan ikertzen eta elkarrizketa bat egiten ikasi dut |      |         |       |
| Taldekide sentitu naiz   |      |         |       |



# IZENBURUA: KOMUNIKABIDEAK



## BIDEOA

|                 |                                 |                              |
|-----------------|---------------------------------|------------------------------|
| Zenbakia<br>108 | Herria<br>Basaburua (Gartzaron) | Protagonistak<br>Miguel Goñi |
|-----------------|---------------------------------|------------------------------|

## GALDERAK

- Ba al zuten telefonorik etxeetan Miguelek azaldutako garaian? Zer egin behar zuten telefonoz hitz egiteko?
- Zenbat telefono dituzue familian? Zuen ustez, zein da komunikatzeko tresna erabiliena zuen ingurunean?

## IKERLANA

- Antzinako eta kultura desberdinetako komunikabideak bilatu interneten zein zure inguru hurbilean dituzun iturrietan.
- Informazioa irudiz zein idatziz jaso.

## TAILERRA

- Informazioa denon artean partekatzeko, komunikazio mota desberdinekin, horma irudi bat sortu, ekarritako irudiak eta idatziak itsatsiz. Alde batean, ezagutzen ditugunak eta, bestean, ezezagunak direnak jarriko ditugu. Aztertu eta beren arteko antzekotasunak, desberdintasunak eta loturak identifikatu.
- Taldetan, asmatu gelakideen artean berri on bat jakinarazteko/zabaltzeko komunikabide berri bat. Gelan dituzuen tresna eta objektuekin sor dezakezue, hala nola soinuak, paperak, boligrafoak, ezabagomak, etab.

**Aldaera:** Egindako asmakizunen batean oinarrituz, eskolak hasi eta bukatu direla adierazteko modu berri bat asmatu. Egun batean, txirrinaren orde, sorkuntza hori erabili.

## ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Natura Zientziak.** *Teknologia, objektuak eta makinak.* Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera.
2. **Arte Hezkuntza.** *Musika.* Interpretazioa: adierazpenerako baliabideak.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Ahozko komunikazioa: entzumena, ulermena, hitz egitea eta hizketan aritzea.* Hitzeko eta bestelako interakzio mezuak ulertzea eta adieraztea.

## AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Asko | Zerbait | Gutxi |
|---|------|---------|-------|
| Komunikabideak zer diren eta historian zehar nola aldatu diren ulertu dut |      |         |       |
| Material xumeekin komunikatzeko modu berri bat sortzen ikasi dut          |      |         |       |
| Taldekie sentitu naiz   |      |         |       |



## IZENBURUA: GURE HERRIA

### BIDEOA

Zenbakia

109

Herria

Atetz (Beuntza)

Protagonistak

Tomas Nabazal

### GALDERAK

- Tomasek kontatzen duenez, herriko zein leku erabiltzen zituen txikia zenean?
- Nolakoak ziren kaleak? Zerez eginak? Euri edo elur pixka bat eginez gero, zer gertatzen zen galtzada horietan?
- Herri/auzo/hiriko zein leku erabiltzen dituzue zuek gehien? Zertarako? Zehaztu 2 leku eta beren erabilerak.

### IKERLANA

- Galdetu adin eta lanbide desberdineko bi herritarri (dendaria, kale-garbitzailea, 5 urteko haurra...) zein den berentzako herri/auzo/hiriko leku edota elementurik kuttunena eta zergatik.
- Informazioa jaso marraztuz, idatziz edota lekuen eta pertsonen argazkiak eginez.

### TAILERRA

- Jasotako informazioa denon artean partekatu. Horretarako herri/auzo/hiriko leku eta elementu kuttunen mapa kontzeptuala egin, pertsonen gustuak-erabilerak ere adieraziz.
- Taldetan, adostu zuentzako garrantzitsuak diren herriko 4-5 leku/elementu, arrazoiak pentsatuz: noiz, zertarako erabiltzen dituzue... Horiek eta ikerketako besteren bat aukeratuz, auzo/herri/hiriko bideo promozional bat grabatu (2-3 minutukoa). Han, lekuak agertzeaz gain, beren garrantzia ere ulertu behar da. Ikerketan jasotako materialak ere (marrazkiak, argazkiak) erabil ditzakezue bideoan.

**Aldaera:** Taldeka aukeratutako herriko 4-5 leku/elementu garrantzitsuenen argazkiak/marrazkiak erabiliz, sortu herriko mapa turistiko berri bat. Marraztu horiek bisitatzeko ibilbide posible bat eta lekuen eta elementuen erabilerak ere adierazi. Fotokopiatu, eta dendetan, udaletxean, eskolan eta abarretan banatu.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

- Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Ahozko komunikazioa.* Hitzezko eta bestelako interakzio mezuak ulertzea eta adieraztea.
- Gizarte Zientziak.** *Gizartean bizitzea.* Ikasleek beren herriko eta inguruko pertsonen komunitate bizitza aztertuko dute, beren udalerriko antolaketa sozial eta politikoa, agerpen kulturalak, hiri arauak eta ekoizpen jarduerak ikertzea abiapuntua hartuta.
- Arte Hezkuntza.** *Adierazpen artistikoa.* Errealitatea eta abstrakzioa artean.

### AUTOEBALUAZIOA

| Itemak  | Askoo | Zerbait | Gutxi |
|---|-------|---------|-------|
| Herriko lekuek pertsonaren arabera erabilerak eta garrantzia desberdina dutela ulertu dut |       |         |       |
| Sustapen bideo bat sortzen ikasi dut  |       |         |       |
| Taldeakide sentitu naiz   |       |         |       |

## IZENBURUA: SOINU PAISAIA

### BIDEOA

Zenbakia  
110

Herria  
Leitza

#### Protagonistak

M<sup>a</sup> Jesus Gogortza  
eta Asunción Lasarte

### GALDERAK

- M<sup>a</sup> Jesusek eta Asuncionez kontatzen dutenenaren arabera, zertarako jotzen ziren ezkilak garai haietan? Bazegoen jotzeko modu bat baino gehiago?
- Zuen herri/auzo/hirietan jotzen al dira ezkilak gaur egun? Zertarako?
- Zein soinu entzuten dituzue maizen zuen herri/auzo/hirian? Aipatu 3 adierazgarrienak.

### IKERLANA

- Apunta itzazu zure egun bateko soinuak, esnatzen zarenetik lokartu arte entzuten dituzun soinu adierazgarrienak: etxean, eskolarako bidean, eskolakoak, parkekoak... Hobeki ohartzeko, zenbait momentutan begiak ixtea gomendatzen da.

### TAILERRA

- Ekarririk informazioa denon artean partekatu. Soinuak sailkatzeko, soinu mapa antzeko bat egin (non/zer zehaztuz).
- Taldeka adostu kokaleku desberdinetako 4-5 soinu garrantzitsu eta jatorrizko lekuetan grabatu.
- Lortutako soinuekin zuen auzo/herri/hiriko soinu-erretiratu edo soinu-paisaia sortu, irratsaio batean jartzeko. Lan hori sortzeko, soinuekin esperimentatu: errepikatuz, nahasiz, distortsionatuz, bolumenekin jolastuz...

**Aldaera:** Jatorrizko soinuak erabili ordez, gorputzarekin zein tresna xumeekin sortu soinu horiek. Entseatu eta, gero, kontzertu moduan aurkeztu gelan.

### ZER IKASI NAHI DA/DUGU? HELBURUAK

1. **Gizarte eta Hiritar Balioak.** *Elkarbizitza eta balio sozialak: elkarbizitzaren arauak.* Elkarbizitzaren arauen kontzeptua eta balorazioa.
2. **Arte Hezkuntza.** *Musika.* Interpretazioa: adierazpenerako baliabideak.
3. **Euskal Hizkuntza eta Literatura.** *Ahozko komunikazioa: entzumena, ulermena, hitz egitea eta hizketan aritzea.* Hitzeko eta bestelako interakzio mezuak ulertzea eta adieraztea.

### AUTOEBALUAZIOAK

| Itemak   | Asko | Zerbait | Gutxi |
|--|------|---------|-------|
| Soinuek gure bizitzetan duten garrantzia ulertu dut          |      |         |       |
| Soinuekin esperimentatzen eta soinu lan bat egiten ikasi dut |      |         |       |
| Taldekin sentitu naiz  |      |         |       |

